




Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Aita Patxi Gondra, Pasiotarra

3. orria



Beldurrarena
Jose Mari Murua
"Egizale"

EUSKAL ASTEA 2018

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

**51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 19 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

AITA PATXI GONDRA, PASIOTARRA

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Gure jatorria

Beti izango da jakinkarria: gure sorburua eta gure elburua. Elburua dogu gure jardun ta ekintza guztietan gure egitaraua. Elburuak erakusten dauku zer dan eta zertarako dan giza bizia. Gai au gogoz aztertu, ausnartu eta bizi ezkeru gure bizitzari bultzada eraginkorra emongo dautsagu. Arazo onetan noberaren buruaren zurtasuna eragin eta erabili bear dogu. Geu izango gara gure buruaren maixu eraginkorrak. Aita Patxi gai ontan berebiziko maixua ta erdua dogu. Gaztetatik asita bere bizi osoan, bere izaera eta bizieran argi ta garbi erakusten dauku zer eta zertarako dan bere kristau elburua. Aita Patxi Arrieta bizkaian jaioa dogu 1910an kristau familia onbera baten. Bere gurasoak Buenabentura ta Benita dira ta bederatzi seme alaba azi zituen. Antxe bai egoan bigun-bigun Kristau azia Patxiren biotz-barnean.

Pasiotarra.

Arrigarria da Patxiren aurtzaroko kristau fedea. Eta gorengo maillara jokatu gura dau eta aukera zintzoa Jesusen alde egingo dau. Gu maiteen nork izan gaitu? Kristo gure Jaunak. Eta zintzo ta zoli esango dau: "Nik Pasiotarra izan gura dot neure anai Eusebioren antzera" Esan eta izan. Gabirian, Tafallan eta Deuston eliz ikastaroak egingo ditu. Eta Angoston 1927 urtean Pasiotarren eliz eskeintzak eginik, 1935 urtean apaizgintza artzen dau. 1937 urtean Eusko gudarien kapellau izanik danak begirunez esaten dautse Aita Patxi. 1936an Gernikako bonba erasoaldi garratza, iru ordukoa, kamioi baten zaurituak sendatzen, gaxoak autortzen, Meza santua ospatzen, gure Jauna emoten, botikak banatzen, jantziak eta janariak monja ta ongillen aldetik. Gauza arrigarria: "Aita Patxi erasoaldi onetan zauri bat be bari geratu zan"

Atxilotua.

Ekaiñaren 13an, atxilotua izanik Cardeña'ra eroan dabe. Geroago Madrid aldeko gudu-tokira. Larrialdi gogor ontan Aita Patxik errukizko ekintza goragarriak egingo ditu kristau fede eta biotz-zabaltasunaren eragiñez. Errukizko ekintza bi: **a)** Cardeñan, soldadu batek, gurasoa bera, gudu taldetik iges eginda eriotz epaia dauko. Aita Patxik gudu agintarien aurrean bere bizia eskeintzen dau guraso orren orde. Arrigarritzko oparia! Bata zein bestea bizirik geratu ziran. **b)** Madrid aldeko gerratean, soldadu bat, gurasoa, eriotzara zigortua izan da. Aita Patxik ori jakinik, bere bizia eskeintzen dau aren orde. Biok, zorionez, bizirik geratu ziran. Madrid aldeko gudu gogorrean guztien alde ta serbitzari dago, kristau zein komunistak izan. Otoitz eta autortzak egiñez, meza santua ospatuz, sendagaiak banatuz, jantziak eta janariak esku zabalez oparituz

Kristoren gurutze ta nekaldia bizi.

Jesukristo gure Jaunak aita Patxi Kalbario mendian jarri dau eta bere gurutze ta Nekaldiaren espiritua ta bizitasuna damotso. Egiaz aita Patxik bere burua ukatu eta menperatzen dau bere biziera opari oparo bat eginez Jainkoaren maitasunez eta urko lagunak, Kristau zein komunistak serbitzeko ekiñaren ekiñez. Urko lagunekin onbera eta apatza izanez, bere buruaz gogor ta zo-



rrotza da. Bere elburua da Jainkoa ta gizakia maitatu ta guztien zerbitzari zolia izan. “Omnia vincit amor” **“maitasunak dana garaitzen dau”** Illaren lenengo ostiraletan arduratzen da gaixoak aitortu eta gure Jauna emoteko. Abade batek diñotso: “Mesedez ez urte etxetik onako eguraldi zaka-rragaz”. Bere erantzuna: “Arima bate gaitik jungo nintzake illargiraño”

Mixiolari ibiltaria.

Bai, mixiolari “autostop” izan da gure errietan eta errosario santua otoiztu. Sarri askotan gure baserrietako bidetan basatza loietan sandaliakin oñak urraturik doakigu gaixoi elizakoak emotera. “Au santu ez bada, ez dago santurik” esaten da. “Aita Patxi Kristau bizieran jarraibide berezia da bere bizi eta ekintzetan, batez be Eukaristian, meza santuan, eta bere bizitza latza-ren gurutz bidean Kristoren nekaldiaz bat egiñik” (A. Añoberos) Bere elburua da: **“al-tius, citius, fortius, gorago, ariñago ta indarsuago” Ez bakarrik elburua, izaera eta biziera baño,**

AFRIKA´KO IPUIÑAK/ ALEGIAK MOXIA TA ZIRIA

Artu dauanagaitik esker ona agertzen ez dauana, ez da izango maitatua eta galduta ibilliko da. Ori da Mozanbike´ko alegi onek irakasten dauskuna.

Moxia eiztari zarrak ba eukazan ziri batzuk piztiak basobaltzean atrapateko. Goiz baten Narrapu eta Mante bere semeak ziriak ikustera joan ziran, eizea ona izan zan jakiteko. Arrituta geratu ziran iena aundi bat ziriak arrapatuta aurkitu ebenan.

Bildurtu be egin ziran eta etxera biurtzeko ustean egozanean, ieneak oi u egin eutsen:

-Ez izan nire bildurrik, zatoze eta poztu egingo zaree.


Gaztetxu biak urreratu ziran ieneagana eta bere narru baltza iguzi eben.


-Maitekorrak zaree- esan eban piztiak, eta ba-dakizue ni janari ona ez nazena. Orduan atera nagizue ziri onetatik.

-Ondo dago ori- erantzun eben anai biak-askatuko zaitugu baiña guri kalterik ez egitekotan.

-Nire berbea emoten dautzuet.

Baiña ieneak gorroto aundia eutson Narrapu ta Mante´ren aitari, alako ziria ipiñi ebalako eta bere aurka apentza artzeko seme biak iltea erabagi eban. Orregaitik bere burua askatuta ikusi ebanean, auxe esan eban:





-Ni nekatuta nago. Eroan nagizue mendi-muiño orren ostera nire janariak or daukadaz-eta.

Ume biak artu eben lepoan ienea eta bideratu ziran mendi-ostera joateko. Eurak be asko nekatu ziran, ienea astuna zalako, baiña isillik egiten eben bidea.

Mendi-ostera eldu ziranean, an ez eben ezer be aurkitu.

-Madarikatua!- esan eban ieneak. Ni zirian nengoan artean baten batek nire janariak ostu daustaz. Baiña an beian, itxasoaren ondoan beste batzuk daukadaz. Goazen ara.

Ume biak alkarrari begiratu eutsoen zer egin ezean. Itxasoa urrin egoan eta euren sorbaldak odole-tan egozan, ienea astuna zalako. Eta ienea auxe pentsatzen egoan:

-Ibilli eragingo dautset guztiz nekatu-arte eta orduan jan egingo dodaz.

Baiña ordu berean andik untxi bat igaro zan eta ikusten ebana ikusita, arritu egin zan. Laster sumatu ebazan ienearen asmoak.

-Zer jazoten da, iena adiskide? Itaundu eutson.

-Oso gaisorik nago eta mutil bi oneik neure etxera eroan bear nabe.

Mutil biak, izardia kenduta, untxiari esan eutsoen ur apur bat ete eukan edateko.



-Bai, emen daukat- erantzun eban untxiak. Ur oso ozkirria da, edan egizue nai dozuen beste.

Gero ieneari esan eutson:

-Zuk ez daustazu sinistu-azoko benetan gaisorik zagozala!

-Bai, bai, ni benetan gaisorik nago. Ziri batera jausi nintzan eta ziria ume onein gurasoak ipiña zan piztiak arrapatzeko.

-Nik ori siñistutea nai ba' dozu, erakutsi egistazu ziria dagoan lekuan.

Biurtu ziran barrero mendi-ostera eta aurkitu eben ziria.

-Emen dago- esan eban ieneak.

-Eta zelan jausi ziñan zirian?

Umeak gertatu eben lakeoa eta ienea barrura sartu eta baituta geratu zan.

-Eta zutzat ez da izan naikoa akatasuna lortzea. Ume oneik iltea nai izan dozu aitaren apentza artzeko! Oraintxe ordainduko dozu okerkeri ori- esan eban untxiak.

Andik laster, Narrapu ta Mante toki aretara joan ziran aitagaz eta ienea askatu baiño lenago katxabakada batzuk emon eutsoezan, egin eban okerkeria zigortzeko.



BELDURRARENA

Jose Mari Murua "Egizale"



Eta sermolariari pekatuaren larria erakusteko auxe entzun genion: Beti ona izan eta ere, azken orduan pekatu larriren bat daukagularik iltzen bagera amaigabeko inpernura Umetxo bat oso biurria omen zen, eta zuzendu eziñik bere ondokoek, zerbait asmatu bearra zegoela eta, auxe erabaki zuten:

Beldurra sar arazi bear diogu, ez bada esaneko izaten. Eta meatxupean esan zioten sotora eramango zutela. Eta umetxo gaixoak galde egin zuen:

Zer da sotoa?

Bada, ume, gizon zatar aundi bat dagoen lekua, eta umetxoak biurriak direnean, artu eta berarekin eramaten ditu.

Asi baziren, asi ziren umetxoa sotora eramán naiaren itxurak egiten. Eta umetxoa pizkorra izan, eta laster batean korrika asita, alde egin zuen, eta ezkutatu egin zen.

Gaua iritxi zen eta umea agertzen ez. Oiuka dei egin, eta iñondik ere ez zela agertuko, eta bedurraren beldurrez, “ezitzailleek” txakur txiki bat ekarri zuten, umetxoak oso gogoko zuena.

Orrelaxe bada, asi zen korapilloaren askapena. Txakur txiki politak umetxoa zegoen ezkutura zuzen-zuzenean, eraman zituen.

Beste baterako pentsatu zuten, txakur txikia izan zedilla aitzaki, umetxoa bere onera ekar arazteko gaiztakerietan asten zenean.

Gertakizun xume onek aurnarketa pixka bat egitera narama, eziketari dagokio.

Izen ziren boladak, beldurraren meatxupean, arrazoiak sendotzeko oitura. Eta arlo

askotara zabaldua zegoen oitura. Eskolan. Etxean, jolasean eta baita ere erlijioan. Eta azken gai orri dagokiolarik bi gertakizun datozkit gogora.

Asteko lenengoa:

Gure aita zenak, esaten zigun, bere gaztaroan, orain eun bat urte, elizan omen zegoe-la, eta apaizak:

“Bein batean aita on bati gertatutakoa. Aita bat ain ona izanik, beti on bidea erakusten eta, izugarria gertatu zitzaion. Seme orrek aita il egin zuen. Eta seme gaizto ori ez zen urrutikoa. Gure lurral-



detakoa. Gaiñera gure errikoa. Eta eliz onetan dago gaiñera”

Gure aita unkituta, bere buruari esaten omen zion “Nik oraindik bizirik zeukat beintzat, eta ez nauk burua galduta ustekabeko ikaragarrizko ori egiña”

Apaizak bere sermoiean, berriro “Bai erri onetan dago, bere aita il zuen seme gaiztoa, eta ez dago urruti esan bezala, gaiñera eliza onetan dago”


Eta azkenean pulpitoan zintzilik zeukan gutruea eskuratu eta orrela bukatu omen zuen: “Au da gutako bakoitzak il genuen aita”

Beste batean:

Neroni gertatua. Gogo Deunak Aste Santuaren aurretikoak zuzen zuzenean joan gaitzezke. Eta azken batean, beldurraren eragiñez, utsa giñela esan nai zigun. Eta gure gorputza oso aula, oso korapillotsua bere barne guztiko izaera, eta une batetik bestera, ustekabean, il egin gintezkeela. Eta pekatu larriren bat barruan izanez gero,” betirako inpernua”. Esaten zigun misiolariak, bein eta berriz.

Amabost urte neuzkan, milla bederatzieun eta berrogei ta bostgarren urtean bizi giñen, eta esan bezala, oso larriturik etorri nintzen etxera. Ez nintzen iritxi nai bezain askar, il zorian gertatuta ere etxekoen babesza izango





nukeenaren ustetan. Eta emen azken batean ez zen inpernuaren beldurra, noski, baizik eta, une batetik bestera ustekabean, neure gorputz au ain aula izanik, il egin nintekeenaren uste txar beldurgarri orrek urduritzen ninduen, esan bezala.

Garai bateko oitura zaarrekin aritu naiz, eta gaur zorionez, ez dago orrelakorik, denok dakigun bezala. Eta Jainkoak, gure Jaunak, barka nazala, zerbaitetan uste gabe, utsen bat egin badet, nire kontakizunean.

Eta nire ezerezetik, bukaera egokienik emateko aurreko gai orri, oe ondoko maitxoan izaten dedan liburu batetik artutako aipamenak. Liburu ori 1961en argitaratua da Arantzazuko prailleek egiña, LAU EBANJELIOAK du izenburua. Gauero loak artu aurretik erabiltzen det. Irakurrietakoetatik ondoren dijoanaren aipamena. Ain itz gutxitan, sakon, argi eta garbi geiago esaterik ez dago, fededun geranontzat.



**Ona, Jesukristok bere bu-
ruaz esandakoak dira:**

**Ni naiz zerutik jetxitako
ogi bizia.**

**Aitak beste iñork ez du
Semea ezagutzen.**

Ni eta Aita bat gera.

**Nere esku utzi ditu Aitak
gauza guztiak**

Ni naiz piztuera ta bizitza.

**Ni naiz bidea, ta egia, ta
bizitza.**

**Animak salbatzera etorri da
Gizasemea eta ez galtzera.**

**Nire pakea uzten dizuet,
nire pakea ematen dizuet.**



GABIRIAKO AITA-AMA ORDEAK

1

Gabiriako egotalditik
badot zauri bat gorderik,
amaren faltaz biotz ta begi
malko saminez beterik.
Praile on ta jatorrak
ain ziran maitekorrak...
Ba zan naikoa zorterik !
Baina munduan ez dago inor
amatxo on baten orderik.

2

Aita Erramon ta Leonides
Kamilo ta Joxe Mari,
ekien dana irakasteko
maisu on eta ugari.
Anastasio ta Blas,
Konstantino Aitagaz
Nagusi eta gidari.
Emon nai, baina zer eskatuko
geiago ez daukanari?

3

Sebastian, Blas, Anbrox ta Ander,
ainbeste Hermano lego,
etxean sartain, erratz, lapiko,
eskean zaku talego.
Anselmok kontrabando,
guzur ta tranpa franko;
Lego bai, baina ez lelo...
Obeto gaur be lapurrak barik
alango asko balego!

4

Aintzinaldiko bainuetxea
desegokia ta zaarra,
baina landare barriz jantzita
artzen dau bizi-indarra.
Kapila ta frontoia,
eta gure sasoi...
Olan bizten zan sugarra;
barru beteak ornitzen euskun
gauza askoren bearra.

5

Española ta frantzes biak
eta latina batera,
karga geiegi ekandubako
astotxo baten gainera.
Baina leenen geurea,
amaren euskerea,
bizkaiera, gipuzkera;
auxe izan da geure geurea
Gabiriatik aurrera.

6

Ez etxean ta ez Gabirian
ez zan ikusten dirurik,
baina munduan ez zan izango
gutzat olango lekurik.
Danok ginan bardinak
alkarren lagun minak,
an ez zan beste gradurik;
esanak esan, nik ez dot beintzat
an egonaren damurik.

Martzel Andrinua

LEN ETA ORAIN PEKATARI

1

Emen garai batean
fede paltik etzan,
arrenbeste aldakuntz
komeni ote zan?
Auxe esan nai nuke
nere ezerre zan:
sarri ibilli arren
modu andrebesan,
dana galdu zaigunik
ezin leike esan.

2

Jaiero elizara
goiz parteko mezan,
naiz ordubete bear
bide andrebesan.
Neguko ekaitzaldiz
bagiñan zer esan?
Olako kezkek gabe
Gaur oiean etzan,
lengoa ere dana
ur garbia estzan.

3

Elizak bapo bete
oi ziran antziñan,
igande-jaiez danok
ortarako griñan.
Zenbat korrika txiki
iritsi eziñan,
da elizan tokia
ain leku jakiñan;
andik erten da nola
portatutzen giñan?

4

Sermoi ederra pranko
entzuten genduan,
bizitza eramateko
bear zan moduan.
Bestela inpernura
bear zala juan,
damua alperrikan
gendula orduan;
da bizitza laburra
zegola munduan.

5

Zeruko edertasuna
eta zoriona,
kristau zintzoarentzat
eginda dagona,
Ortan saiatuko zan
gure apaiz ona,
inpernura iltzen bazan
pekatun zegona;
bildur ori sartutzen
ziguten danona.

6

Santu askon bizitzak
sermoíaren jiran,
nola pekatariak
izanduak ziran.
Inazio bat ere
bere tira-biran,
auxe esaten zula,
munduko dizdiran:
"anima galdu ezker
zertarako diran?"



7

Begiratzten badegu
lengo istorira,
asarre eta gerrak
ikusiko dira.
Naiz oso zintzo
bete elizako jira,
gorrotoz gaiñeztuta
erten atarira;
ez elizan legeak
bete izan balira.

8

Garbi esan nai nuke
da oso serio,
lengo jokera askoz
ez naizela fio.
Alkar maitatutzeko
Jesus onak dio,
iganderoko meza
eta komunio;
gorroton dagonantzat
ez dute balio.

9

"Ni pekataria" esan
dezagun aurrena,
apaltasuna degu
gauzik bearrena.
Errespetoa izan
beti alkarrena,
askatasuna berriz
doai ederrena;
premi duna zerbitu,
ez degu txarrena.

10

Orain elizetara
lengo jenderik ez,
baiña joaten geranak
ondo sinismenez.
Elizkizun guztiak
gure izkuntz jatorrez,
ez gera estutuko
inpernu bildurrez;
Jesus errukiorra
degularik juez.

11


Lenengo pekatua
Adan da Ebaren,
aien jarraitzaileak
gu nola geraden.
Pekatoriak orain,
pekatoriak len,
baiña apaltasunez
egiñik aitormen;
bide obeagorik
ez daukagu emen.

12

Nola len ala orain
gera pekatari,
aitormen ori egin
dezagun nunnari.
Barkamena eskatu
zeruko Jaunari,
guregatik odola
eman Zuanari;
salbatu bai gindezke
eskerrak Berari.

Txomin Garmendia

EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (XII.)



2. ZATIAN.

Sarreratik datorrena.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea.

Alpeetan, Aleman, Italiano ta Franzes izkelki edo mintzadarretan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez:

-Romance, Suizan % 0'7, 50.000 giza seme alaba.

-Ladino, aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitasen erdian 10.000 giza seme alabak berba egiten dabena.

-Friuli, Austria, Eslovenia eta Italiaren muga 500.000 giza seme alaba.

-Occitano, Piamonteko lurraldean 200.000 giza seme alaba.

-Esloveno, Piamonteko mugan, Trieste eta Gorizian 80.000 giza seme alaba.

Alpes eta Kaukasoren gertakizunetan mendi andien babesean, izkuntz geiago bizi dirala eta euren nortasunak obeto zaintzen dirala ikusten dogu.



Alpeseko errietan euskal mitolojian bezela, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italian beste toki izen batzuk: Ligurian: venasca.

-Genovan: benasco.

-Pavian: beaschi.

-La Chapelle: benêche.

-Vaucluse: venasque.

-Napoles ta Kampanian: ausona ta liberi.

-Salermon: orria.

-Potenzan: anzi, abriola, banzi, eta abar.

Siziliari buruz, garrantzizko gauza da, 25urtetik 10'era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana aipatzeari: Siziliako alor edo soroak⁽¹⁾ leenengo landu ebezanak Oñamendi edo Pirineosetik bera joan zirenak zirala, eta euren lurraldearen erreka aipatzeari bearrezkoa izanda, euren ezagutzazko gogoketan ulertu egiezan: zikanos zirala esan eben.

Zikano berbea, baleike Oñamendian⁽²⁾ dagon Zinka ibaiaren izena izatea.

Naita ziurtasun guztiagaz egon ez.

(1) Alor edo soroak = campo de cultivo. (2) Oñamendian = Pirineos.

Ararat mendia Armenian



Eskozia, Gales, Irlanda ta Ingalaterran Euskerazko toki izenak⁽¹⁾.

Zalantza aundiko berbak dira: barri edo berri adizkietan amaitzen diranak.

Landa berbea adibidez⁽²⁾, edo Irlandan, Gara ibaia.

Eskozia eta Irlandaren meaguneko lurretan: carrick berbea (karr = piedra) edo scoth (-sk doñuan, eusko, ausko edo basko lez) ta Glasgow (gasko doñuan).

Kaukasoan.

Zalantzazko berbak eta sinisgabekeria artu bear diranak dira, Jeorjian adibidez: Gorbeya (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra lez).

-Armenian: Ararat mendia (Araba, Gipuzkoa ta goi aldeko Nafarroaren bitartean dagoan Aralar mendi eta edo mendi besanga lez).

-Edo Gora (lurren izkuntzan Montaña esangura dauana eta Euskeraz Arriba).

Bereber inguruan.

Zalantzazkoak dira: Magdalenien garai alditik datozen berbak -barri abotsean amaitzen diranak, adibidez: **Sugabarri**, **Zuchabarri** (Ptolomeo), edo **Sucbar** (Pliniok).

-Eta beste batzuk, euskal toki izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz⁽³⁾, adibidez: gar)a (altura), garb, garian, gar-daya eta abar.

Karl Bouda aleman⁽⁴⁾ euskalaria, eta errusiaren izkuntzako berarizkoak⁽⁵⁾, esaten eban.

Euskerea eta Siberiako izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu⁽⁶⁾ egin ebazala, argi ta yrgi (luz) berbaren arteko legez.

-Bele (cuervo), lepo (cuello), gurdizka (carreta), elur-lera edo elur-narraren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen⁽⁷⁾ artean esaten dabe: euskerea ta uraleseko izkuntzarekin, Fines, Ungaro, eta Siberiako Obi ibaiaren

(1) Toki-izenak = topònimos. (2) Landa = nai-ta keltiar berbea-be ba dala, gogoratuz. (3) Adizkiak = elementos verbales. (4) 1.901ean Anburgon jaioa ta 1.979an Erlangen il. (5) Berarizkoak = Especialistas. (6) Argiratu = Descubrir. (7) Bera-rizkoen = especialistas.

ibarrean bizi diran errien fino edo sendi-ugriara⁽⁸⁾, suomiera⁽⁹⁾, laponiera, ungariera ta abar, Ostiaren izkuntzakaz, kidetuta dagozela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxeniketik be ikertu ebezan zitekezen orreik, eta iztegiko zenbaketari bidearen emonak beti izan ziran %tik 5 baiño gitxiago.

A ta guzti euren esana: Euskerea, Uralo Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoena da.

Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta arri aldia amaitu zanean 1.000.000 -3.500 eta Eneolitiko edo arri alditik Tupiki edo brotzezko aldiaren K.a. 3.500-1.400 sartu ziranean ?.

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundia emon ebela, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzeko.

Orregaz batera, euren denborak be nasaitzen asi jakiezan, giza legean aurreratzeko eta bear ebezan arri landuak trebetasunean egokitzeko.

(8)Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusiena dana. (9) Suomiera = Finlandiako erriaren izkuntza.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzar ta izkuntzapean Atlant Itsasotik Urruneko Asiaraiño, ta Europaren Iparraldetik Afrikaraiño.

Orduko lur zabal aiek, mutur batetik bestera joateko oiñez ibilita, lar urruti geratzen ziran lez, leen Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten azkortu ziran, eta denborearen irauntasunekin asken baten, naita erpe batekoak izan arren, eta leiñuaren auzotasunagaz arremanak euki, izkuntz ezberdiñetan egokitu ziran.

Eta milla urte askoren igarotasunean, euren arteko jakintzak aldagarri edo trukagarritasunezko ekintzan bizi ziran, nortasunezko askatasunaren arteko *lots edo begirune* ta demokraziaren ekandu bidez, bakezko zentzu aundiak lortuz.

Euskalerrria ikusi dogun lez, or, Atlant-itsasotik Alemania erdiraiño eta Eskoziatik Kadizeraiño lortu ebala bere jendekuntz aundia, Ekialdetik norkeriaren menperatzailetasunezko gogo ta oiturak agertu ziran arte.


Eta Euskalerrriko edesti au aurrerantza joaten danean argi ikusiko doguna, gure euskal lurra zelan joaten dan murrizten, naita Euskalerrria berak, bere nortasunaren ekanduzko zentzunetik ezer galdu-gabe, eta batera, menperatzailearen alegiñak bildugarrizkoak izan arren, ez dirala izan gai, euskaldunak Jainkoari begira lortuta daukaguzan ekanduzko siñismenak ezereztutea, toki-izenaren aztarnakaz sortzen dan lez, irugarren zaititik aurrera ikusiko dogunez.

Eta emen K.a. 3.000ko urtetan eukiten dogu lurraren lenengo murrizketa, Iberoak Afrikatik urten da⁽¹⁾(?) eta erdi ugarte onen erdi-aldean, Ipar Mendebal eta Egoaldean kokatu ziranean.

Nik ez dotena sinistuten, Ibero orreik leen Omosapiens edo euskaldunak ziralako, eta edestilariak esaten dabezan aldaketak, euren ugaritasunean agertu jakiezan zabaltasunen bearrezkotasunetik sortu ziralako.

Europara ez zan agertu bigarrenez ekialdeko alderraiezko leiñutasunik, arik eta K.a. 2.000 urte inguru Alemaniako lurraldeetan Keltiarrak agertu arte.

(1) Iberoak Afrikatik urtenda? = Iberoak euskaldunak izan ziran.



3. ZATIAREN.

Aurkezpena.


(2) *Arri-landuen legunketako* = *piedra pulimentada*. (3) *Menast-aldia* = *edad de los metales*. (4) *Xautzaille* = *consumidor*. (5) *Estal-itx* = *disimulo, eufemismo*.

Neolitiko Mesolitiko denborak edo askeneko arri-landuen legunketako⁽²⁾ aldiak K.a. 10.000 urtetik 5.000 urterarte izan ziranetik, gero Eneolitiko edo menast⁽³⁾ aldiko denboran sartzeko, aldaketa aundiko denborak izan ziran, eiztariak izatetik, artzain izatera, eta landarearen mozkiñak batzeagaitik lurgintza edo nekazaritzara aldatu ziranean, xautzaille izatetik⁽⁴⁾, egille izatera aldatu ziralako, eta emendik aurrera sartzen gara Mundu onetan sortu ziran jendekuntzetan.

Jendekuntzatan sartu zirala, estal-itx⁽⁵⁾ edo esateko era-bat da, jendekuntzatuta beti egon garalako, edo gai-mundu onetara jaio gintzazanetik bai beintzat.

K.a. 8.000 urteetan Saarako basamortua be, belarzelai edo bazkalarre aundi bat izan zan denbora orreitan.

Neolitiko denborak, bigarrenko arri erinduaren denborak dira eta Mesolitikoaren aldiak askeneko arri-landuarenak, gero Eneolitiko edo tupiki denboretan sartzeko.



Menast alditan sartzeko denborak, Ekialde Urbillean eguraldi beroagaitik orain 9.000 urte asi zan eta Europan 6.000 urte inguru, negu-giro edo otz aundiko eguraldiak euki ebazalako oraindiño.

Eta 4.500-2.000 urte bitartean sortu ziran orduko gizartearen aldaketa aundienak berotasunezko eguraldiak agertu ziranean.

(1) Eziketa = *doma de animales, amansamiento, domesticación*. (2) Domu = *importe, valor, coste, capital, caudal, fortuna, empeine del calzado*. Domu-bide = *capitalismo*. (3) Iraun-erazi = *hacer durar, conservar*. (4) Zumel edo mimen = *mimbre o bara de mimbre*.

Eguraldiaren berotasunezko aldaketa oneikaz, eizaren oitura apur-bat bastartuta, etxegintzan eta erriak sortzen asi ziran, eta bete beterik arri-landutik, bei, txerri, ardi ta basautzaren eziketara⁽¹⁾ aldatuta, artzainketan edo abere zaintzan asi ziran, domu bidean⁽²⁾ oso osoan sartuta.

-Etxegintza edo buzingintzan be asi ziran, eta ortik aurrera barazki ta okelak egosiz gain, ura be etxe barruan iraun-eraziten⁽³⁾ zan.

-Zumel edo mimenezko⁽⁴⁾ otzarak.

-Lumentzan aurkitutako errotea, bii, zitu, edo aleak esagutzen ebezala esangura dau.

-Baita errekan ibilteko zuaitzak ustuten.

-Errioxako Añes, Gazteizeko zelaietan, Elgetan, Atzania, Kalamua, Gorriti, Belate, Landarbaso, Jaizkibel, Ilbardin, Abarratein aurkitu ziran illobi edo illetako-arripil, tregoarri edo trikuarri, jentillarri eta Neolitikoaren aldiko Mairuelegorretan, Surbi, Santimamiñe, Lumentza, Urtiaga, Jentiletxeta, Kastelar, eta Isturitz´eko leize-zuluzko aztargunetik, etxegintzara aldatu ziran.

Euskalerriko seme-alabak bear eben guztirako, oso trebeak izan bear ziran, gauzak egokitzen, eta gauza guzti oneik ez ziran kanpotik etorritak, indoeuropeo alderraien aztarnik ez dalako euren euskerazko izenetan aurkitzen.

Emen eta iñoren elkar-naste barik jendekuntzatu ziran Euskalerriko seme-alabak, euren azturabideko oituran, eta egiaren edo egizko askatasunaren demokrazian lortu be Ekanduaren mailla ederrena, gure gaurko egunean oraindiño be euskal baita lez agertzen jakuna, fazizta kataliko menperatzaillaren zoraldirako.

Oraiñ, guazan menperatzailletasunak sortzen asi ziranetik zer gertatu zan ikustera.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2018-11-26.- URANGATAR Erika –EMAKUMEAK FRANKISMOAN–

2018-11-27.- ETXEBARRIATAR Juan Manuel –EUSKA ADITZ ALOKUTIBOAZ–

2018-11-28.- LARREATAR Angel –EMAKUMEAK BIZKAIKO GIZARTE TRADIZIONALEAN–

2018-11-29.- LARREATAR Angel –I. MUNDU GERRAREN AMAIERAREN 100 URTE–

2018-11-30.- ATUTXATAR Pablo –EUSKALDUNEN NORTASUN ETA ESKUBIDEEK IZENEAN–

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2^a esk.

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- **Azillaren azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan edo info.euskerazaleak@gmail.com izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kалан (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

EUSKERAZALEAK. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao - 48001

info.euskerazaleak@gmail.com.

Txalupa txiki onetan
orrenbeste lagun,
lagun, lagun,
ez dakit zer biaje
atera biar degun,
kubiertan lekurik ez,
bodega txikia,
ez dakit zer biaje
atera bear degun.

Auxen da barko berria,
auxen da barko berria,
ondo kostata ekarria,
ekarria.

Ni naiz Kapitain Pilotu.
zu zera Kapitain Pilotu.
neri bear zait obeditu,
obeditu.

Eltzen badiot kraxketan
bonbilo, bonbilo, beera.
Eltzen badiot norbaiti
Bonbilo bat, bonbilo bi
Bontilo putzura erori.